

**1- Ikastolen kontseilua : Bozka xuri eta baliogabearen balioa :**

Seaskako estatutuetan ageri denez, bozka bat onartua izateko, present diren ordezkarien gehiengoa lortu behar da : estatutuek diote<sup>8</sup>. Artikuluan “erabakiak partehartzen duten gehiengoaren arabera hartzen dira” “les décisions sont prises à la majorité des représentants présents”.

Bi manieraz interpretatzen ahal da :

1- *present direnen artean gehiengoa, hots gehiengo erlatiboa beharrezkoa dela erabaki bat hartzeko*

*adibidez : 100tik 45 alde, 25 kontra eta 30 xuri baldin badira, baiezkoak irabazten du (45 alde, 25 kontra baitira).*

2- *present diren ordezkarien arteko gehiengoa, hots gehiengo absolutua beharrezkoa dela erabaki bat hartzeko.*

*Adibidez : Aldeko bozkak gehiago izan behar dute kontrako, xuri eta baliogabeak elkarturik baino. Lehengo adibidea hartuz, 25 kontrakoek 45 aldekoen parean irabaziko lukete.*

Estatuak aldatu gabe, proposatzen da barne araudian zehaztea gehiengo erlatibo edo arruntaz ari garela eta ez gehiengo absolutuaz.

Proposamena

Ikastolen Kontseiluan bozkak gehiengo erlatiboz onartuko dira.

**2- Ikastolen bozkak**

Bozkak nola egin eta biltzen diren finkatu behar dugu. Seaska mailako dokumentoetaz ari gara, ez ikastolako biltzar nagusiaz, hori ikastolako barne araudiak finkatzen baitu.

Federazio mailako eztabaidentzat – Ikastolen Kontseilua eta Seaskako elkarte dedikatuen Biltzar Nagusiak (Herri Urrats, Integrazio Batzordea, Ikastolen Egoitzak) – ikastola bakoitzak ordezkariak izendatzen ditu (ikasle kopuruaren arabera titular eta ordezeko Ikastolen Kontseilurako, ordezeko eta titular bat Seaskako elkarte dedikatuentzat).

Ikastolen Kontseiluko aipagaiak ikastoletako Biltzar Nagusietan bozkatzen dira, elkarte dedikatuenak biltzar nagusian, ikastolen Administrazio Kontseilu edo bulegoetan aitzinetik eztabaidatu ondoren.

Ikastolen Kontseilua eta elkarte dedikatuen Biltzar Nagusietan ordezkariak ikastolen bozkak dituzte ekartzen. Ikastola bakoitzak zer bozkatu duen informazio publikoa da, edozein burasok kontrola ahal izan dezan bere ikastolako ordezkariak zer bozkatu duen.

Ordezkarik (titular eta ordezkari) guztiak urte hastapenean izendatuak dira. IkastolaK alda ditzake, izen eta kontaktu guztiaren taula Seaskari igorri.

Estatutuetan ageri denez Ikastola bakoitza, izendatzen dituen burasok ordezkarien bidez ordezkatu da Ikastolen Kontseiluan. Ordezkarik kopurua doakion ikastolako ikasle kopuruaren arabera finkatzen da ondoko arauak adierazten duten bezala :

- 50 ikasle arte :2 hautetsi,
- 51 eta 100 ikasle bitartean : 3 hautetsi,
- 101 eta 150 ikasle bitartean : 4 hautetsi,
- 151 eta 200 ikasle bitartean : 5 hautetsi,
- 200 ikasletik goiti, hautetsi 1 gehiago ➤ 100 ikasleko

Bestalde, ikastoletan eta federazioan diharduen langilegoa Ikastolen Kontseiluan ordezkatu da, LOT (Langile Ordezkarien Taldea) egituraren bidez. Langileen ordezkari kopurua ondoko arauen arabera finkatzen da.

- Denbora osozko 50 enplegu hein arte : 2 hautetsi
- Denbora osozko 100 enplegu hein arte : 5 hautetsi
- Denbora osozko 150 enplegu hein arte : 8 hautetsi
- Hortik goiti, denbora osozko 20 enplegu heineraino ➤ hautetsi 1 gehiago

### **3- Bozken berbanaketaren kalkulua :**

*Federazio mailako eztabaidei buruz ikastoletan egiten diren bozkak, ikastolen ordezkariak ekartzen dituzte. Arazoa sortzen da, bozka kopurua ordezkari kopuraren arabera egokitzeke mementuan.*

*Adibidez 2 ordezkari dituen ikastola batean 30 partehartzaile : 14 alde, 10 kontra, 6 xuri.*

- *Ikastola batzuetan 2 Bai eginen lukete, Baiak irabazi baitu;*
- *Beste ikastola batzuetan 1 Bai, 1 Ez eginen lukete, Baiak ez baitu gehiengo osoa ukan;*
- *Eta beste ikastola batzuetan 1 Bai, 1 Xuri eginen dute, Baiak irabazi duela agertarazteko.*

Proposamena :

Bozka batek gehiengo absolutua lortzen badu, Ikastolen Kontseilura eramaten diren bozen gehiengoak proposamen horren alde dira. Adibidez ikastola batean 10 alde eta 5 kontra baldin badira eta bi hautetsi baldin badituzte 2 alde. 3 hautetsi baldin badituzte 2 alde eta 1 kontra. 4 hautetsi baldin badituzte 3 alde eta bat kontra, eta abar...

Proposamena batek ez badu gehiengo absolutua lortzen, Ikastolako biltzar nagusian nagusitu den bozka nagusi izan behar da ere ikastolako ordezkariak Ikastolen Kontseilura eramanen dituzten bozketan. Ondotik, ahal bada, bigarren iritsi den proposamena agerrazten da, eta ondotik, ahal bada, hirugarrena.

Adibidez 2 ordezkari dituen ikastola batean (30 partehartzaile) :

- 14 Bai, 10 Ez, 6 xuri → 2 Bai
- 10 Bai, 14 Ez, 6 xuri → 2 Ez
- 6 Bai, 10 Ez, 14 xuri → 2 Xuri
- 14 Bai, 14 Ez, 2 xuri → 1 Bai, 1 Ez

3 ordezkari baldin baditu ikastolak (50 partehartzaile):

- 34 Bai, 10 Ez, 6 xuri → 3 Bai
- 24 Bai, 18 Ez, 8 Xuri → 2 Bai, 1 Ez
- 24 Bai, 8 Ez, 18 xuri → 2 Bai, 1 Xuri
- 24 bai, 13 Ez, 13 xuri → 2 Bai, + hautuz 1 Ez edo 1 Xuri

4 ordezkari baldin baditu ikastolak (60 partehartzaile):

- 57 Bai, 3 Ez, 1 xuri → 4 Bai
- 24 Bai, 22 Ez, 14 xuri → 2 Bai, 1 Ez, 1 Xuri
- 24 Bai, 14 Ez, 22 xuri → 2 Bai, 1 Ez, 1 Xuri
- 24 bai, 18 Ez, 18 xuri → 2 Bai, 1 Ez, 1 Xuri
- 28 bai, 28 Ez, 4 xuri → 2 Bai, 2 Ez

Ikastolen hautetsiek, ikastoletan egin bozka ordezkaturako dute. Ikastola batek 3 boz baldin baditu, baina 2 ordezkari bakarrik present badira IK egunean, ikastola horrek 2 ordezkari balitu bezala banaturako ditu bere bozak.

#### **4- Buraso-Langileen ordezkariak**

Ikastolako langileek LOTn bidez bozkatzen dute, eta ez lan egiten duten ikastolako biltzar nagusian. Aldiz langile bat ikastola berean edo beste batean buraso baldin bada, buraso gisa ere bozkatzen ahalko du bere haurrak diren ikastolan.